

haizeaz bestaldetik (txillardegi)

laz agertutako liburu hau, aurrera-koekin hamar urtetako aldia izanik, laugarren «txillardegikumetxoa» dugu, literatur idazlanei bagagozkie behintzat. Arrazoi nahikoa da hau euskal letren mundutxoan gabiltzanon begiak haren orrialdetara bultzarazteko. Eta pazientzia apur bat eta pote batzuen laguntzaz horrelako tamainako enpresa aurrera bukatu arte eraman ahal izan dugunok, zorte berdina ukan gabe, bide erdian etsi behar izan dutenekiko elkartasuna adierazteko beharrean aurkitzen gara. Benetan zaila gertatzen bait da idazti honen irakurketa, Txillardegik berezko duen zailtasun linguistikuari zailtasun sinboliko eta literario bate gehitu behar bait zaio honetan.

«Haizeaz bestaldetik» liburuan aldezturik nobelaren kontzeptioa zalantzan jartzen da —literatur generoen betiko eztabaida nolabait mamituz —zaila gertatzen bait da, geroago ikusiko dugunez, termino generiko baten azpian ezartzea Txillardegiren idazlan hau. «Haizeaz bestaldetik» nobelan ez zaigu gertaera edo historia bat (zentzu tradizionalan hartuz) kondatzen, baizik eta sinbolo mundua eta gertaera itxura duten elementu batzuen sinbiosiaren bitartez, Txillardegiren nobelagintzan ohizkoak diren giza arazoak tratatu nahi izan ditu idazleak. Beraz nobela tradizionalaren elementuak —pertsoneiak, denbora, lekuak, e.a.— sinbolikoak bihurtuz nobelaren mugak poesiararen mugetara hurbiltzen dira idazlan honetan. Egitura ere sinbolikoa bilakatzen du egileak nobela honetan. Zazpi aldiz zazpi kapituluz egina dago liburuaren azaleko egitura, liburuaren bukaera hasera bihurtuz, eta honela egitura guztiz zikliko eta sinboliko bat lortuz. Nobelaren sinbolismoa kontraezarketa binario baten gainean eraikita dago: itsasoa (infinitoa, mugagabea, mogimenduz beteta) eta lakua (finitoa, mugatua, geldia) eta bi elementu hauetatik abiatuz sinbolo mundu guztia eraikitzen



du; beste elementuak, itsasoari eta lakuari dagozkien neurrian izango dira adierazgarri eta baliodunak. Nobelaren mamia —mamirik baldin bada finito eta infinitoaren —materialismo eta trszendentziaren— arteko ibilaldi neketsua dela esan genezake. Neurri handi batean —aurreko nobeletako neurri berean— kutsu biografiko batez idatzita dago, sendimenduak eta bizipenak biografi metafisiko baten bidez adieraziz. Interpretapen zentzu berdinean ulertu behar dira azaltzen diren toponimiak ere (Soustons, Getharia, Igeldo). Bi elementu hoiere arteko ibilaldi edo bidaian, ametsak eta oroitzapenak azaltzen dira ugari, oposizio, pilaketa eta errepikak nobelan zehar hainbat aldiz erabiliz.

Azken nobela hau beste aurreko hiruren aurrean ezartzen badugu berehala ikusten da izugarritzko aldaketa eta ezberdintasunak daudela, forma planteiamenduen aldetik bati bat —preokupazio eta kezka filosofikoak berdinak bait dira denean—. Narratzailea erabat baztertu eta aldatu du, narrazio haria guztiz apurtuta gelditzen da, eta idazlea molde tradizionalatik libre dago molde berriak asmatzearren. Honen zergatia edo arrazoiak, haustura erradikal horren arrazoiak alegia, aurkitu nahi balitz, aski genuke Txillardegik eraman duen desarroilo literarioa begiratzuz. Nire iritziz, frustrazioaren semea dugu «Haizeaz bestaldetik». «Leturia»ren bitartez bide berriak kasualitatez asmatu zituen idazle bat, kritikak hankaz gora uzten du geroko bi nobelaren —«Peru» eta «Elsa»— hankasartzeengatik. Horregatik sortzen den frustrazioaren erreazio bezala, lehengo hankasartzei ihes egin nahi dien gauza erabat berri bat egin nahi izan du Txillardegik. Gehiegizko hertsitasun batean erori dela aitortu behar, nire ustez. Baina fruitua hor daqo, bere ukaezinezko garrantzi eta funtzioaz.

JOSU LANDA